



### Egilea / Autora

**Beatriz Fernández Fernández** UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko irakasle titularra da. 1989az geroztik zientoka ikasle izan ditu urtero Hizkuntzalaritzako bere irakasgaietan. 1997an doktoratu zen unibertsitate berean. Euskaltzaindiko euskaltzain urgazlea da 2013az geroztik. Euskarari eta aldakortasun sintaktikoari buruzko zenbait lan eta liburu idatzi eta editatu ditu hemen zein nazioartean. Erein argitaletxearekin eman zuen argitara orain arteko bere azken lana, 2016an: *Euskera para castellanohablantes (o de cómo dos lenguas tan distintas se parecen tanto)*, Anna Pinedak (CNRS-IKER UMR 5478) katalanera itzuli eta *egokitu zuena Basc per a catalanoparlants (o de com dues llengües tan diferents s'assemblen tant)* izenburupean (Voliana, 2016). Seme bakarraren ama da. Berarentzat eta Euskal Herriko gazteentzat idatzi du liburu hau.

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Euskara eta hizkuntzari buruz**

Egilea / Autor: **Beatriz Fernández**

Saila / Colección: Saiopaperak - Pentsamentua eta gizartea, 19

ISBN / EAN: 978-84-9109-221-6

Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 168

Formatua / Formato: 14 x 22,5 cm



### Lana / La obra

Batxilergora heltzen direnerako bi ibilbideren artean aukeratu behar izaten dute gazteek: Letrak edo Zientziak. Letretakoa izan nintzen ni gazte garaian eta sintaxilaria, hizkuntzalaria naiz orain. Letretakook fama onik ez genuen gure garaian eta orain ere, antza, ez dugu fama hoberik. Ikaslerik trebeenak Zientzien adarrean omen. Hizkuntza aztertzeari, euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta ez horren hizkuntza ezagunak analizatzeari alferrikakoa deritzote batzuek eta beste batzuek, aspergarri bezain gorrotagarria, Mate, Fis-kim, Tekno eta Marrazketa ikasten duten ikasle askok adibidez, Hizkuntza ikastera derrigortuta daudenak unibertsitatara joan bitartean behintzat.

Alabaina, Hizkuntza aztertzea gauza miresgarria da, sekretuz betetakoa; desafia egiten dio gure adimenari –ez, ikaslerik trebeenak ez daude Zientzien adarrean nahitaez–; hizkuntza ezagutuz gizakia bera ere nolakoa den uler daiteke, haurtzarotik zahartzarora bitartean; hizkuntza berriak sor daitezke, hizkuntza nahasturak egin daitezke, *pidginak* deritze, eta euskaldunok islandiera-euskara pidgina izan genuen behinola; pidginetik kreolera sor daiteke, Hawaiin sortu zen bezala; hizkuntza biziak hil egin daitezke (euskara bera, tentuz ez bagabiltza), edo hobeto esanda, nahita akabatu; Pulp Fiction filmean, Vincent Vega eta Jules Winnfield gangsterrek darabilten hizkera ez da BBC-ko esatarien hizkera bera, ezta Euskal Herriko gazteena nahitaez euskara estandar eta jaso; eskizofrenikoen hizkeran antzeman daitezke gaitzaren erakusgarriak; Alzheimerrek aurrera egin ahala, hizkuntza narriatu egiten da, oroimenarekin batera, guztiz galdu arte.

Hizkuntzaz gogoeta egitea ez da, beraz, alferrikako jarduna ezta aspergarria ere, abentura ikaragarri eder bat baino. Orrialde hauetara hurbiltzen diren gazteek zein gazte sentitzen direnek, izan Letretakoak izan Zientzietakoak, ikusi eta beharbada ikasiko dute hori.